



Zein da zuzena ?

- Partida **irabazteko asmoz** zelairatu ziren jokalariek.
- Partida **irabazi asmoz** zelairatu ziren jokalariek.



- TZEKO asmoz, asmo(t)an, asmoarekin... eta antzeko egiturak erabiltzen dira literatura-tradizioan. Erabilera horixe da zuzena eta gomendatzekoa.

Halaxe ebatzia du Euskaltzaindiak bere arauetako batean:

*“Erabil bitez egiteko asmoz, joateko asmoz, eztabaidatzeko asmoz, e.a., tradizioa duten egiturez baliatuz, eta ez \*joan asmoz, \*egin asmoz, \*eztabaidatu asmoz.”*

Euskaltzaindia, “41. araua: egiteko asmoz”



Bai eta gomendatua ere bere hiztegian:

*“Euskaltzaindiak, joan asmoz, egin asmoz esapideek eta kidekoek euskara idatzian izan duten erabilera kontuan harturik, esapide horien orde, joateko asmoz, egiteko asmoz eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du.”*

*Euskaltzaindiaren hiztegia, “asmoz” sarrera.*

## Hortaz:

- Partida irabazteko asmoz zelairatu ziren jokalariak.

\*Partida irabazi asmoz zelairatu ziren jokalariak.





- Badira, haatik, **-TU asmoz** egitura baliatzen duten adibide bakan batzuk OEHn. Eta zabalduxa dago egun erabilera hori. Badirudi, ordea, **aditz-perifراسi guztiz egoki honekin** nahasteagatik esplika daitekeela erabilera desegoki hori:

-TU aditz-partizipioa + ASMO IZAN/UKAN

- **Egin asmo dut.** (≈Egiteko asmoa dut)
- **Habanara joan asmo du.** (≈Habanara joateko asmoa du)
- **Helegitea jarri asmo du.** (≈Helegitea jartzeko asmoa du)
- **Londresen gelditu asmo zuen.** (≈Londresen gelditzeko asmoa zuen)
- **Medikuntza pribatua bultzatu asmo dute.** (≈Medikuntza pribatua bultzateko asmoa dute)

● Hona, orain, zenbait adibide:

-TZEKO asmoz, asmo(t)an, asmoarekin

- Otsoa ta Bildotsa heldu ziren bakoitza bere aldetik ibai batera ura **edateko asmoz**.
- Kai aldera joan ginen asteko soldata **kobratzeko asmoan**.
- Zarautzera joan nintzen Patxi Barberoren omenaldian **kantatzeko asmotan**.
- Oilo-lapurreta **egiteko asmoarekin**.

- Beagle ontziak, 1831n, atzerriko lurralde batzuetako longitudeak **finkatzeko asmoz** itsasoratu zenean, hogeita bi kronometro zeramatzan lan horretarako.

Dava Sobel, *Longitudea*, Euskaratzailea: Irene Aldasoro. EHU, ZIO bilduma, 2012.



Beagle ontzia (1845)

- Hazkunza-plaka garbitzeko eta esterilizatzeko **asmoarekin** hartu zuenean, konturatu zen *Penicillium* lizuna bakterio-koloniak suntsitzen ari zela.

Vollhardt, K., Schore, N., *Kimika organikoa. Egitura eta funtzioa* Euskaratzaileak: O. Orobengoa, S. Jauregi (Elhuyar). EHU, 2008

- (...)



## -TU ASMO IZAN/UKAN

- Alpeetako Saas ibarrean Allalinhorn, Strahlhorn eta Lagginhorn mendiak **igo asmo dituzte**.  
(*Berria*, Ekaitz Agirre, 2009)
- Igaro den astean, Durao Barrosok Eskoziako Gobernuari **bidali asmo dion** gutun baten zirriborroa aurkeztu zuen Europako Batzordean.  
(*Berria*, Erredakzioa, 2012)





## Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia (2001). "[41. araua. Egiteko asmoz](#)"

Euskaltzaindia. "[asmoz](#)", "[asmo izan](#)" sarrerak. In *Euskaltzaindiaren hiztegia*.

Euskadi irratia, «Faktoria» saioa (2016-09-29). *Ibon Sarasolaren hitza*. "Egin asmo" esamoldea zuzena al da? [Hemen](#)